

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Erreserak noren ganik zaukan lurraren maiteasun hori.
2. Zer landatu zuen Aitaakok
3. Zer ikusi zuten Aita-Semeak beren lurraren

② Etxea 4.

Eta orhoit zen Piarres, lurraren amodio hoi aitaren ganik zaukala guzia. Egun batez, iguzki minarekin ari ziren biak gaineko landa handian. Hatsaren hartzeko doia gelditurik, beren herri maiteari lana eman ziren beraz ixil ixila. Haize-hegoak eskuak hunkitzeko heinean hurbil ekarriak, han zituzten, aintzinean, Larrune-Mendia bere harri peña handiekin, herriko oihan, hariztegi eta phagodi ilhunak. Hurbilago, itsasora buruz luzatuz zoala, ohiko⁹ ibar gizona; zur-xurien¹⁰ erdian aldiz, ur-handi¹¹ maitea, elizari agur bat erranik, ihesi gero han harat zoana. Eliz-hilherriak xuri xuria han zituzten, bizen amodioaz alderdi guzietatik inguratuak.

Han ber-berean hasten zitzaieten gero beren erresuma: luzatuz arthoak, urheztatuak ogiak, itsasoko uhinak iduri, farra-farra¹² alde guzietarat haizeak harrotuak. Aitaxok iguzkira landatu aihena aztaparka heldu zitzaieten ondo ondora, hilak phizturen zituen odola harri-arte guzietan bildu eta xurgatu beharrez thematua.¹³

Ixil ixila bethi, loriatuak biak, han zauden aita-semeak, noiz eta ere, bieri betan zimurtu baitzitzaieten kopeta... Hantxet, landa bazterrean nor zen han agertzen, *heten lurrean?* Orori beha, begi ozarrean¹⁴ nor da jaun hori, *heten alhorrean?* Eta egiazki erran ziteken bazterrak oro, gaitzituak,¹⁵ beha zaudela hek ere. Han argatu arbasoak ez othe ziren, lur-mokar bakotxaren gibeletik, asarre altxatzen ari, arrotzaren behatzeak asalduretan emanak?... Eta, begia illunik, landari beheiti abiatu zen aita.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Zaukala 32. Zoala.
33. Zitzaioten 34. Ziteken.

31. IDUKI - Indicatif Imparfait

Hura = le, la.

- Nik naukan = je le tenais
Hik naukan = tu le tenais
Zuk zinaukan = vous le teniez
Harek zaukan = il le tenait
Guk ginaukan = nous le tenions
Zuek zinaukaten = vous le teniez
Heiek zaukaten = ils le tenaient.

32. JOAN Indicatif.

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa (je vais)	Nindoan (j'allais)
Hi hooa	Hindoan
Zu zoatzi	Zinoatzin
Hura doa	Zoan
Gru goatzi	Gruinoatzin
Zuek zoazte	Zinoatzen
Hek doatzi etc.	Zoatzin etc.

33. IZAN - Conj. Régime indirect Indic. Imparfait

Hura Zen = il était

- Hura zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaion = il lui était
zitzaigun = il nous était
zitzaizuen = il vous était
zitzaien = il leur était

Zu zinen = Vous étiez

- Zu : Zintzaizkidan = vous m'étiez
Zintzaizkion = vous lui étiez
Zintzaizkigun = vous nous étiez
Zintzaizkien = vous leur étiez
Zuek zinezten = Vous étiez
Zuek Zintzaizkidaten = vous m'étiez
Zintzaizkieten = vous lui étiez
Zintzaizkiguten = vous nous étiez
Zintzaizkieten = vous leur étiez